

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 13koa, aldatzen duena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, sozietateen gaineko zergarena, jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatzearen murrizketari dagokionez

“BEPS” akronimo ingelesa da, eta bere baitan hartzen ditu planifikazio fiskal oldarkorrek eragin zerkusua duten zenbait praktika, zeinekin nazioarteko profila duten hainbat enpresek ahalegintzen diren, era artifizialean, dauden tokietako zerga eremuari dagozkion zerga oinarriak gutxitzen; bada, ELGAK egindako “BEPS” Planaren harira, uztailaren 19ko 3/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, ELGAREN baitan hartutako hainbat konpromiso foru zerga ordenamendura txertatzekoak eta Europar Batasuneko hainbat zuzentarau betetzekoak, beritasun garrantzitsuak sartu zituen nazioartean “patent box” izenarekin ezagututako araubidean; beritasun horietako bat zen jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatzearen ondoriozko errentak murriztea, plan horren 5. ekintzara egokitzeak. Ekintza horren helburua da zerga jarduera kaltegarrii aurre egitea, gardentasuna eta funtsa kontuan hartuz.

Horretarako, 2016ko uztailaren 1etik aurrerako zergaldietarako, aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretuaren bidez, egokitu egin zitzaizen sozietateen gaineko zergaren foru arauaren 37. artikuluan xedatutakoa ELGAREN Zerga Jarduera Kaltegarrii buruzko Foroan eta ECO-FINen Ereduzko Kode Taldean onartutako akordioei eta, ondorioz, funtsezko jarduera irizpidea, “modified nexus approach” izenekoak, gehitu zitzaion hari. Irizpide horretan oinarrituta, zuzeneko lotura eskatzen da zerga onura gozatzen duen ustiatetari darion sarreraren eta sarrera hori lortzen laguntzen duen gastuaren artean.

Aurrekoaren parean, nazioartean adostutakoari jarraituz, erregimen iragankor bat ezarri zen 2016ko uztailaren 1a baino lehen egindako aktibo horien lagapenerako. Erregimen iragankor horrek zergadunei ahalbidetzen die erregimen aldatuaz gozatzea bost urtez, gehienez.

Nazioarteko foro bi horietan erdietsitako akordio osagarri berriak betez, zerga premiazko araugintzako dekretu horren helburu da erregimen iragankorrean aktibo berriak sartzeko arriskua arintzea 2016ko ekainaren 30 inguruan, aktibo berri horien asmo bakar baita zerga tratamendu batetik onura ateratzea, zeina berez ez zitzaizen aplikatu behar.

Horretarako, hau da, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera alderdi lotuetatik zuzenean edo zeharka eskuratzen diren aktibo ukiezinei sozietateen gaineko foru arauaren hemeretzigarren xedapen iragankorrean araututako erregimen iragankorra zergadunek aplikatu dezaten saihesteko, babes neurri gehigarriak ezartzen dira, baldin eta, aplikatzen ari zitzaizen zerga araubidearen arabera, eskuraketa horren unean onura horietarako eskubidea ez bazuten.

Babes neurri hori berehala sartzeko beharrak –2016ko zergaldiari eragiten dio eta zergaldi horren likidazio epea 2017ko uztailaren 1ean hasiko da– eskatzen du aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua aplikatzea, Arabako zergei buruzko foru arau orokorraren 8.1 artikuluan jasotakoez baliatuz.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege jaurbideari buruzkoak, Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko zergaren foru araua aldatzea.

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergarenaren, hemeretzigarren xedapen iragankorrari ahapaldi bat gehitzea. Hona hemen hura:

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ez zaie erregimen iragankor hau aplikatuko foru arau honen 42. artikuluan aipatutako alderdi lotuetatik zuzenean edo zeharka eskuratzen diren aktiboei, baldin eta eskuraketa unean haiek ez bazuten eskubidea jabetza intelektuala edo industrialak ustiatzeagatik murrizketa erregimena aplikatu zekien.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio zerga premiazko araugintzako dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTINEZ